

JARRAIBIDEAK:

Bi ariketa aurkezten dira, bat aukeratzeko: A aukera eta B aukera. Biek egitura bera dute. Ikasleak horietako **BAT** aukeratu beharko du.

**A AUKERA**

**1. zatia.** (2 puntu; 0,5 termino bakoitzeko)

Definitu, ahalik eta zehaztasun handienarekin, honako termino hauetatik soilik 4: Tanta hotza, Egiturazko funtsak, Haizebeko isurialdea, Landa-turismoa, Handizkaria, Migrazio-saldoa.

**2. zatia.** Gaia: “Iberiar Penintsularen erliebea”. (Gehienez 4 puntu)

Garatu gaia, kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Penintsulako erliebearen unitate handiak aipatu.
- Azaldu goi-lautadaren eta bere ertz menditsuaren ezaugarriak, honako hauek zehaztuz: kokapen geografikoa, bilakaera geologikoa, litologia eta erliebearen formak.
- Nafarroako erliebea: Mendialdeko unitate morfologikoak.

**3. zatia.** Ariketa praktikoa.

Behean daukazun mapa ikusirik, erantzun galdera hauei:

- Aipa izatzu turistaren dentsitate handia daukaten probintziak, eta esan horietako bakoitzean zer nolako turismo-mota den nagusi.
- Hitz egin ezazu Espainiako eskualdearen arabera turismoari buruz, probintziak eta erkidego autonomoak aipatuz.
- Aipatu turismoaren ondorio sozioekonomikoak.



